



**2011KO URRIAREN 27KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako urriaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpi terdian, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu estensoro, Felix Urkola Iriarte, Ane Irastortza Izagirre, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman eta esaten du eguneko gai zerrendan ez dagoen mozio bat aurkeztu dela eta ezer baino lehen mozio horri presazko izaera aitortu eta gaurko osoko bilkuran eztabaidatu ala ez erabakiko dela. Eta hitza mozioaren aurkezpena egin duen Serna zinegotziari ematen dio.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bi arrazoi daudela mozio hau presazko bezala aurkezteko, bat dela Sasetako zuzendaritzan aldaketak egon izana eta horrek aldaketa garrantzitsuak ekarri ditzakela eta bestalde, esaten du, atzo bertan sartu zirela bi puntu eguneko gai zerrendan hasiera batean sartu gabe zeudenak.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du egia baldin bada ere forma aldetik ez dela egokiena baina bestalde egia dela baita ere bi puntu sartzen zirela atzo bertan jakinarazi zitzaizela eta horiek ere epez kanpo egongo liratekela; esaten du baita ere udal honetara aurkeztu diren mozio gehienetan jarrera tratatzearen aldekoa izan dela eta beraz honetan ere ez direla aurka azalduko.

Alkateak esaten du aipatzen dituzten beste bi puntu horiek eta mozio honen tartean alde nabarmena dagoela eta alde hori da bi puntu horiek batzordean eztabaidatutako puntuak zirela eta mozio honetako gaia ezetz; esaten du baita ere mozio honetan udalari konpromezu batzuk hartzea eskatzen zaiola eta mozioaren aurrean jarrera bat hartu aurretik nahita nahiezkoa ikusten dute mozioaren gaia ingurugiro edo dagokion batzordean aztertzea.

Honen ondoren bozketara jartzen da mozio honi presakazko izaera aitortu eta tratatzea ala ez, eta osoko bilkurak, aldeko 5 botu (EAJ, PSE-EE) eta aurkako 7 botuz (Bildu) ez tratatzea erabakitzen du.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Jarraian bertaratutako onespenera aurkezten da 2011ko irailaren 28an egindako bilkurako akta.



Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du mozioaren inguruan eta Bilduren jarrera azaltzerakoan, aktan jasotzen dena baino askozaz gauza gehiago esan zituela. Esaten du besteak beste ondorengo hauek esan zituela: Euskal Herriak gatazka politikoa pairatzen du eta gatazka honek irtenbide demokratikoa behar du; progresiboki eman beharreko pausurak indarkeria mota guztiekin amaitzea izan beharko luke eta baita normalizazio politikoa bermatzea ere; E.T.A.k, espainiar estatuak eta frantziar estatuak erabaki politikoak hartu behar dituzte eta ekimenak burutu gatazka konpontze bidera; prozesu honen helburua bakea eta normalizazioa lortzea izango lirateke. Prozesu hau noski kolektiboa izan behar da, ez unilaterala; Gernikako akordioak eta Mitchell printzipioak bere gain hartze dituzten puntu guztiak konpartitzen ditugu. Horregatik, Gernikako Akordioan aipatzen diren puntu berak eskatzen direnez, bat egiten dugu mozio honekin; oinarrizko eskubideak dira lehenengo bermatu behar direnak; mozio hau onartzea gatazka politikoa gainditzeko onuragarri izango da.

Aipamen hauek jaso ondoren, gainontzean, akta idatzita dagoen moduan onartzen da, bertaratutako guztien aldeko botuekin.

## II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

## III.- ATAUN ETA LAZKAOKO UDALERRIEN ARTEKO MUGA LERROA ETA MUGARRIAK BERRRESTEKO ETA FALTA DIREN MUGARRIAK BIRJARTZEKO EGINTZA .-

Udal Osoko Bilkurak, 2009ko apirilaren 23an egindako batzaraldian, Ataun eta Lazkaoren arteko mugako mugarren ikuskaketa espedientea hasteko akordioa hartu zuen. Era berean lan hauek aurrera eramateko batzordea izendatu zuen.

Lan hauek egiteko daudenez eta 2009an hartutako erabaki haren geroztik udal hauteskundeak izan direla kontutan hartuta, gai hauek arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauean araututakora egokituta batzordearen osaketa berria egitea dagokio.

Guzti hau honela, eta gaia hirigintza batzordean informatuta izan ondoren, batzordea honela osatuta izatea proposatzen da:

- Alkatea.

- Bi zinegotzi:

- Inazio Estensoro Eskisabel
- Juan Manuel Serna Portugal

- Udal Idazkaria.

- Teknikaria: Txomin Barandiaran Arratibel Udal Teknikaria.





Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

#### IV.- C.A.F.EKO URBANIZAZIO LANEN 2. OBRA-EGIAZTAGIRIA .-

C.A.F.eko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoa eta Javier Santos arkitekto teknikoak lanen 2. obra-egiaztagiria luzatu dute. Bigarren obra-egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA HAMABI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA ZAZPI ZENTIMOTAKO (132.395,07 €) da. Lan hauek Construcciones Iturrioz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, C.A.F.eko urbanizazio lanen lehen obra-egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

#### V.- 6 H.J.A.KO –ITURGAITZAGA- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALARI JOSE ANTONIO OIARBIDE AGIRREAREN BERRAZTERTE ERREKURTSOA.-

Jose Antonio Oiarbide Agirre jaunak "6 – iturgaitzaga" h.j.a.-ri buruzko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren eta bere testu bateratuaren behin betiko onarpen akordioaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu du.

Lazkaoko Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntual honi dokumentua 2010-12-23ko udal osoko bilkuran behin-betiko izaerarekin onartua izan zen. Hasierako dokumentuaren aurreikuspenak eta onartutako alegazioetatik ondorioztatutakoak jasotzen zituen Testu Bateratua, bere aldetik, 2011-02-10eko akordioaren bidez izan zen berretsia. Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilak 2ko 7/1985 Legeak, bere 70.2 artikuluan dioena betez, aldatutako hirigintz fitxa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 148 zenbakidunean, argitaratua izan zen 2011-08-04ean.

Oiarbide jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsoren edukia, laburbilduz, honako hau da:

- 1.- Akordioaren erabateko deuseztasuna argudiatzen du, bere ustez Euskadiko Lurzorua eta Hirigintza arautzen dituen ekainaren 30eko 2/2006 Legeak dioenaren arabera Lazkaoko Udalak ezin duelako dokumentua behin-betiko izaeraz onetsi, udalerririk ez baititu 7.000 biztanle baino gehiago.
- 2.- Onetsitako planeamendua erabat deuseza denez, ondoren bere garapenean berretsita-ko dokumentuak ere hala direla kontsideratzen ditu, konkretuki Urbanizatzeko Jarduketa-Programa eta Birpartzelazio Proiektua.

Berraztertze errekurtsu honen aurrean egin den txosten juridikoak zera dio:

Argudiatutako arrazoen muinean sartu baino lehen, aurkeztutako errekurtsoa onargarria den edo ez zehaztu behar da, zeren Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, bere 107.3 artikuluan dioenaren arabera, ezin izango baita izaera orokorreko xedapen ad-





ministratiboen aurka errekurtsorik aurkeztu, eta hori da hain zuzen gure kasuko Arau Subsidiarioen dokumentuak duen izaera.

Jurisprudentziak adierazi duenez -erakusgarritzat Auzitegi Goreneko 2009-09-30eko sententzia aipatu daitekalarik-, onetsitako planeamendu-onarpen akordioetan bi alderdi bateratzen dira: alde batetik, hirigintz dokumentuko arau-izaeradun eta xedapen orokorreko edukiak, aipatutako 30/1992 Legearen 107.3 artikulua aplikagarri zaiena eta administrazioarekiko auzi prozesuan soilik errekurritu daitezkeenak, eta beste aldetik Udalak onartutako onespen akordioa bera, egintza-administratibo izaera duena eta, beraz, berraztertze bidez errekurritu dena.

Gure kasuan, Oiarbide jaunak ez du dokumentuaren edukien kontra egiten, onarpen egintza-administratibo beraren alderdiaen kontra baizik, zeren, esan den bezala, Lazkaoko Udalak hau onartzeko eskuduntzarik ez duela defendatzen baitu. Beraz, errekurtsua onartu eta bere funtsa aztertu beharra dago.

Hau esanda gaineratu behar da aurkeztutako berraztertze-errekurtsua ezestu egin beharko dela. Arrazoia, dokumentuetako memorian agertzen den bezala, espediente horiek aurreikusten dituzten aldaketek izaera xehatua duten zehaztapenen gain eragina dutelako da - onetsia eta Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Testu Bateratuan integratua izan den antolamenduko lur-azpiko lerrokaduren ahokadura edo doikuntza -. Aldaketa hauek, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, bere 30. artikuluan dioenaren arabera planeamendu orokorraren aldaketarako eredu edota Plan Bereziaren eredu erabiliz egin daitezke, bi kasu horietan izapidea - hiri-lurzorua denez - 2/2006 Legearen 97. artikulua aurreikusitako prozedimenduaren bidez egin beharko delarik, zeinak - Lazkaoko udalerraren kasuan-, udala eskumetzen du behin betiko onesperako.

Beraz, "6 Hirigintz Jarduera Area – Iturgaitzaga" -ri buruzko Lazkaoko Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala onesten duen 2010-12-23ko akordioa, eta baita bere Testu Bateratua onesten duen 2011-02-10eko akordioa ere guztiz legezkoak dira, Oiarbide jaunak aurkeztutako berraztertze-errekurtsua ezestua izan beharko delarik.

Txosten honen aurrean eta Hirigintza Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Oiarbide jaunak tartearritako berraztertze errekurtsua ezeztea erabakitzen du.

#### VI.- 6 H.J.A.KO -ITURGAITZAGA- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALARI LASA-ESNAOLA FAMILIAREN KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBO ERREKURTSOA.-

Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren Kontentzioso-Administratibo Salak udal honi jakinarazi dio, Osoko Bilkurak 2010eko abenduaren 23an hartutako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko aldaketa puntualaren behin betiko onarpen akordioaren aurka, Joaquin Maria Lasa Esnaola, Jose Ramon Lasa Esnaola, Joseba Imanol Lasa Esnaola, Jon Lasa Esnaola, Andoni Lasa Esnaola, Ana Jose Lasa Esnaola eta Miren Edurne Lasa Esnaolak Errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri dutela.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:



- 1.- Lazkaoko Udala prozedimentuan bertaratzea.
- 2.- Lazkaoko Udalaren abogatu gisa jardun dezan, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatua izendatzea.

**VII.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 4 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako guztien aldeko botuekin honako hau

**ERABAKI DA**

**Lehenik.-** Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 4 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

**KREDITU GEHIKUNTZAK**

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
I	Pertsonal gastuak	107.828,38 €
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	10.230,00 €
VI	Inbertsio errealak	267.813,27 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>385.871,65 €</b>

**FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK**

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
IV	Transferentzi arruntak	118.058,38 €
VII	Kapital transferentziak	243.220,38 €
VIII	Finantza aktiboak	24.592,89 €





<b>GUZTIRA</b>	<b>385.871,65 €</b>
----------------	---------------------

**Bigarren.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**VIII.- LAZKAO LANTZEN, S.A.RI ABALA.-**

Lazkao Lantzen, S.A. Udal Elkarteak kreditu kontua kontratatu behar du Gipuzkoa Donostia Kutxarekin, eta kreditu kontu hau kontratzeko, Kutxak, udalak abalatua izatea eskatzen du.

Kreditu kontu honen ezaugarri nagusiak ondorengo hauek dira:

Diru-kopurua: 400.000 €

Epea: Urte bete

Irekitze-Komisioa: %0,15

Erabili gabeko saldoarekiko hiruhileko komisioa: %0,15

Diferentziala: 12 h. Euriborra + %3

Bermea: Eskatzailearen pertsonala + Lazkaoko Udalaren abala

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du gai honetan, eta mailegua udalak eskatu ala mailegua Lazkao Lantzenek eskatu eta udalak abalatu, egoera nolakoa den ikusita ez diotela abal hau emateari baiezkorik emango, mailegu hau eskatu beharra baldin badago Iturgaitzagako gunean udalak eta Lazkao Lantzenek aurreratuta dauzkaten diruak berreskuratzeko martxan jarrita dagoen prozedurarekin aurrera egin nahi ez delako dela, eta beraz aurka bozkatuko dutela ezin delako jarraitu Lazkao Lantzenen diruarekin promotore pribatuak edo aprobetxamenduak dauzkaten lur-jabeak finantzatu.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ia bere osotasunean bat datozela EAJk egin duen analisisian eta beraien iritzi hori hainbat batzordeko bileratan eta administrazio kontseilu bileratan azaldu dutela eta gobernu taldearen partetik orain arte beti erantzun zaiela gaia konplexua dela eta aztertzen ari direla. Esaten du baita ere beraiek behin ere ez direla izan erabat zorrotzak epeak finkatzeko garaian eta beti utzi izan dutela konfiantza tartea, eta uste dutela orain ere horrelako zerbait gertatzen dela eta beraz alde bozkatuko dutela, garbi utziz aurrerako bidea egiten jarraitzeko uzten den konfiantza tartea dela.

Alkateak esaten du beraiek bideragarritasuna ziurtatzea oso garrantzitsutzat jotzen dutela eta Lazkao Lantzen ez abalatzekiko ondorio oso larriak ekarriko lituzkela. Eta gehitzen du mailegu honekin lortuko den dirua derramaren kobraketarekin lortu baldin bazitekeen ere urteetan aurretik dagoen mailegua amortizatzen joan zitekeela baita ere eta ez dela hala egin eta beraz egoera honetara ez gaituela oraingo jardunak eraman baizik eta aurretik datorren zerbait dela.

Guzti honen ondoren bozketan jartzen da gaia eta Osoko Bilkurak, aldeko zortzi botu (Bildu, PSE-EE) eta aurkako 5 botuz (E.A.J.) Lazkao Lantzen, S.A.k kontratatu behar duen kreditu kontua abalatzekoa erabakitzen du, alkatea ahalmenduz akordio hau bideratzeko dagozkion dokumentuak izenpetu ditzan.





### IX.- ORDENANTZA FISKALAK.-

Alkateak esaten du bere onarpenera jartzen dela ordenantza fiskalen aldaketa Ogasun Batzordean aztertu ondoren honek egiten duen proposamenaren arabera.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ordenantza fiskalen azterketa egiteko egin diren ogasun batzordearen hainbat bileretan aldaketa handi xamarrek ikusi dituztela hasierako proposamenetatik azkenera, eta hori zati batean eskertzen dutela baina bestalde beraiek proposamen bat egin zutela ura eta zaborren tasan hutsik zeuden etxebizitzetara ma handiagoa jartzeko, horrela etxe hauek alokairuan atera zitezten lortzeko eta proposamen hau ez dela kontutan hartu eta hori horrela abstenitu egingo direla.

Goenaga zinegotziak, Ogasun Batzordearen presidentea den partetik, erantzuten dio Serna zinegotziari esanez ez duela uste hori legezkoa denik eta bestalde batzordean esan zion bezala ados daudela berarekin hutsik dauden etxeak alokairura ateratzeko neurriak hartzearekin baina hori epe motzean tasen bidetik egin beharrean egokiagoa ikusten dutela epe luzeago batera ondo aztertu ondoren neurriak hartuz egitea.

Serna zinegotziak erantzuten dio ez duela uste legez kanpokoa denik horrelako neurriak hartzea eta ildo horretan hor dagoela baita ere uraren inguruan gobernu taldea bera aztertzen ari den uraren tarifa progresiboaren gaia, kontsumo handiak zigortze alderara.

Goenaga zinegotziak erantzuten dio uraren inguruko hori beste era bateko neurria dela, uraren gehiegizko kontsumoa zigortzeko, eta hori aztertzeko degoela eta oraindik forma eman gabe.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du ez dihoaztela aurkako boturik ematea eta bi gauza aipatu nahiko lituzketela, bat da gaur arte mantendu diren hainbat jarrera politiko KPIren gaineratik igoerarik ez ontzat ematearenak badirudiela orain erori egin direla, ordenantza fiskalen gai honen azterketan zehar egin diren hainbat planteamendutatik ondorioztatu daitekeenez, eta beraz demagokiak nolabait ere bukatzen direla eta praktikotasunera gerturatzen gerala eta bestalde ezezko boturik ez emateko arrazoia izan litekela aurreko osoko bilkurak gaia ez erabaki izanak, gehiago aztertzeko, eta honek ondorio batzuk izan dituela hainbat planteamendutan aldaketak egon direlako; esaten du baita ere bestalde baiezkoa emateko argudio handirik ez dutela, izan ere beraien iritziz tasa hauek inolako irizpiderik gabe planteatutakoak direla, bai hasieran eta bai orain; esaten du baita ere behin eta berriz eskatu dela mahai baten inguruan alderdi guztiak bildu eta datozen lau urte-etarako bakoitzak bere planteamenduak mahai gainean jarri eta bide bat markatzea eta hori hor gelditu dela; esaten du baita ere hitzegiten ari gerala zenbat baina ez dela esaten zertarako; baita ere esaten du kalkulurik gabeko proposamen bat dela iruditze zaiela, pentsatu nahi duela udal gobernuak kalkulu hori baduela baina beraiei behintzat ez zaiela jakinarazi; esaten du baita ere autonomo eta enpresario txikientzako zergetan laguntzeko neurriren bat hartzeko egon daitezkeen aukerak aztertzea eskatu dutela eta ez zaiela erantzun; eta bukatzen dun esanez guzti horrengatik abstenitu egingo direla.

Goenaga zinegotziak EAJri erantzunez esaten du O.H.Z.n igoera planteatzen dutela baina era berean orain arte O.H.Z. familia ugariarentzat zegoen hobaria kendu eta zergak ordaintzen laguntzeko ordenantzan lanbide arteko gutxieneko soldata erreferentzi gisa hartuta O.H.Z. ordaintzeko laguntzak jartzea planteatzen dutela, eta honekin laguntza be-



har gehien daukan jendearengana iritsiko dela gehitzen du; esaten du baita ere sartzen diren aldaketen azalpen bat eginez, baserrietan obrak egiteagatik lehen hobaritutako tarifa bat zegoela baserria jarduera bakartzat zutenentzat eta orain jarduera bakarraren baldintza hori kentzea planteatzen dela; esaten du baita ere ura eta zaborbilketa bere horretan uztearen ondorioz jasoko ez den dirua igotzen diren zergetatik lortzen direla, O.H.Z. eta ibilgailuetan; esaten du baita ere zerga eta tasak ordaintzen laguntzeko ordenantzaren inguruan, lanbide arteko gutxieneko soldata errefrentzizat hartuta egindako taula aplikatzearekin orain dagoen taularekin konparatuz ireki egiten dutela laguntzen aukera sorta gehien behar dutenengana iritsiz; esaten du baita ere kiroldegiko zerbitzuak emateagatiko tasetan planteatu dituzten igoerak egindako kostuen azterketa baten ondorioz planteatzen direnak direla.

Guzti honen ondoren eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aldeko 7 botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta 5 abstentzioz (EAJ, PSE-EE) honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Akordio honen azalpenean aipatutako eta bere espedientean aurkitzen diren ordenantza fiskalen aldaketa, behin-behineko izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtutzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

#### X.- TAXIEN HIRI-TARIFEN ALDAKETA.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2012 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidatu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreren azterketa bidali dute baita ere.

Datorren urterako proposamenak zera aurrikusten du:

- 1.- Oraingo tarifak urtearteko 2010-2011 abuztutik abuztura bitarteko K.P.I.an igotzea, hau da %2,8 igotzea.
- 2.- Tarifa berri bat sortzea festa bezperatako gau ordu eta jaiegunetako gau orduetarako.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2011)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua





3,1658	0,9911	18,9302	3,1658	1,5806	29,7521
--------	--------	---------	--------	--------	---------

Guzti hau kontutan izanda, gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaraturako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- 2012 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA (2012)			
Tarifa kontzeptua	Abiasaria	Ibilitako kilometroa	Zai egindako ordua
1 Tarifa *	3,2544	1,0188	19,4602
2 Tarifa **	3,2544	1,6249	30,5851
5 Tarifa ***	3,3521	1,6736	31,5027

\* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.

\*\* Tarifa hau egunero 22:00etatik 7:00etara, eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan eta halaber larunbatetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da..

\*\*\* Tarifa hau ostiraleko 22:00etatik larunbateko 07:00ak arte; larunbateko 22:00etatik igandeko 07:00ak arte; jaiegunetan bezperako 22:00etatik jaieguneko 07:00ak arte eta jaieguneko 22:00etatik hurrengo eguneko 07:00ak arte aplikatuko da..

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

#### XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurkeztu duen mozioa dela eta, alkateak mozioa euskaraz aurkezteari buruz egin duen komentarioari erantzunez, legeriak udala behartzen duela mozio hori euskaraz jartzera eta ez bera.

Jendartetik hitzegiten duen lagun batek EAJren bozeramaileari zuzenduta esaten dio iaz ogasun batzordeko bi bilera bakarrik egin zirela tasen gaia onarpenera osoko bilkurara ekarri aurretik.

#### XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeita bederatzik direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

